

GIZA ZIENTZIETAKO UNIBERTSITATE TITULUA

2020/2021 ikasturtea

1.- IKASKETEN PLANGINTZA

2020/2021 ikasturtean ikasketen plangintza baldintzaturik dago COVID19ak sortutako egoera dela eta. Ez dakigu nondik nora joango den gaixotasuna, eta gainera asko eragiten dio Bizkaiko Esperientzia Gelak kokatuta dauden egoitzari, hau da, Espainiako Bankua kaleko 2. zenbakiko eraikinari.

Zehazki, eragiten die sarrerari, irteerari, eraikin barruko zirkulazioari, bertan eman daitekeen denborari, instalazio eta zerbitzuen erabilerari, ikasgelen edukierari etab.

Hori guztia aintzat hartuta, 2020/2021 ikasturtean irakaskuntzak aldaketa batzuk izango ditu, dokumentu honetan azalduko ditugunak.

1.1.- 2020/2021 IKASTURTEKO IRAKASKUNTZA MODALITATEAK

Datorren ikasturtean printzipioz hiru modalitate aurreikusten ditugu irakaskuntzarako:

1.- Aurrez aurreko modalitatea.

Aurrez aurreko irakaskuntzan, irakasleak eta ikasleak ikasgelan egongo dira gai bakoitzari dagokion denboraren % 100ean.

2.- Modalitate mistoa.

Aurrez aurreko irakaskuntzan, irakasleak eta ikasleak ikasgelan egongo dira, gai bakoitzari dagokion denboraren % 50ean.

Bestetik, gai bakoitzeko irakasleak gaiaren eduki guzti-guztiak telematikoki eman beharko dizkie ikasleei, nahi duen bidea erabiliz.

3.- Modalitate ez-presentziala

Irakaslea eta ikasleak ez dira ikasgelara joango, eta plataforma telematikoen bidez emango edo gidatuko da irakaskuntza.

Aurreikusitako ezin diren edozelako arrazoiengatik modalitate hau aplikatu behar izanez gero, zehatz eta mehatz eta alde aurretik azalduko da gai bakoitzean, nahitaezkoetan nahiz hautazkoetan, erabiliko den prozedura zehatza.

1.2.- 2020/2021 IKASTURTEKO IRAKASKUNTZA MODALITATEAK

Beheko taulan agertzen dira 2020/2021 ikasturterako erabiltzeko asmoa dugun modalitateak.

Plangintza honetan aldaketarik egonez gero, ikasleei horren berri emango zaie ahalik eta azkarren.

IRAKASGAI MOTA	AURREZ AURREKO IRAKASKUNTZAREN EHUNEKOA			
	1. maila	2. maila	3. maila	4. maila
Nahitaezkoa	% 100	% 50	% 50	
Hautazkoa	% 50			

1.3.- TALDEEN GEHIENEN KIDE KOPURUA 2020/2021 IKASTURTEAN

Beheko taulan agertzen da zein izango den talde bakoitzaren gehieneko kide kopurua 2020/2021 ikasturtean.

IRAKASGAI MOTA	TALDE BAKOITZEKO GEHIENEN KIDE KOPURUA			
	1. maila	2. maila	3. maila	4. maila
Nahitaezkoa	15	18	18	
Hautazkoa	18			

1.4.- MAILA BAKOITZEKO TALDE KOPURUA 2020/2021 IKASTURTEAN

IRAKASGAI MOTA	TALDE KOPURUA			
	1. maila	2. maila	3. maila	4. maila
Nahitaezkoa	2	4	4	
Hautazkoa (irakasgai bakoitzeko)	2			

1.5.- 2020/2021 IKASTURTEKO ORDUTEGIAK

Nahitaezko irakasgaiak astelehenetan, asteazkenetan eta ostegunetan emango dira 1. mailan, eta astelehen eta ostegunetan 2. eta 3. mailan.

Nahitaezko irakasgai horien ordutegiak hauek izango dira:

Nahitaezko irakasgaien ordutegiak

MAILA	ASTELEHEN, ASTEAZKEN ETA OSTEGUNAK	
1. maila	10-11,15	11,30-12,45

MAILA	ASTELEHENAK ETA OSTEGUNAK		
2. eta 3. mailak:	9,00-10,15	10,30-11,45	12,00-13,15

Hautazko irakasgaiak astearte, asteazken eta ostiraletan emango dira.

Hautazko irakasgai horien ordutegiak hauek izango dira:

Hautazko irakasgaiak.

MAILA	ASTEARTE, ASTEAZKEN ETA OSTIRALAK	
Maila guztiak	10-11,15	11,45-13,00

1.6.- 2020/2021 IKASTURTERAKO EBALUAZIO IRIZPIDEAK

Gai bat gainditzeko, funtsezko eta ezinbesteko baldintza da ikaslea gai horren aurrez aurreko eskolen % 80ra agertzea gutxienez. Bestela esanda, ikasleek huts egin dezakete gai bakoitzeko aurrez aurreko eskolen % 20 justifikaziorik aurkeztu gabe. Eskola gehiago galduz gero, baina, ezin izango dute irakasgai hori gainditu.

2.- Irakasgai bat gainditzen ez badute, NAHITAEZKOA izan nahiz HAUTAZKOA izan, hurrengo ikasturtean edo tituluko maila guztiak amaitutakoan matrikulatu ahal izango dira berriro irakasgai horretan.

3.- Matrikulatzeak berekin dakar Giza Zientzietako Unibertsitate Titulua egiteko baldintza guztiak onartzea.

1.7.- 2020/2021 IKASTURTEKO IRAKATS ESKAINTZA

Ikasketa planean nahitaezko eta hautazko irakasgaiak daude. 1., 2. eta 3. mailako ikasleak matrikulatu behar dira dagozkien nahitaezko irakasgaietan eta, horretaz gain, hautazko bi irakasgaitan.

Nahitaezko irakasgaiak

MAILA	LEHENENGO LAUHILEKOA	BIGARREN LAUHILEKOA
1.	Lengua y Literatura I Salud y Actividad Física Historia del Arte I	Historia Universal I Psicología Elementos y Evolución Hª de la Música
2.	Nutrición y Salud Historia Universal II Lengua y Literatura II	Cultura Vasca Historia del Arte II Sociedad, Ciencia y Tecnología
3.	Historia Universal III Historia del Arte III Situaciones Sociales y Culturales	Lengua y Literatura III Historia del Pensamiento Económico y Político Conocimiento del Medio: Geografía y Ecología
4.	Hautazko hiru irakasgai (aukeratzekoak)	Hautazko hiru irakasgai (aukeratzekoak)

Nahitaezko irakasgaien eskaintza bi lauhilekotan banatzen da, bakoitza hamabost astekoa.

Nahitaezko irakasgai bakoitzak 4,5 kreditu dauzka, hots, 45 eskola orduren pareko zama akademikoa.

Hautazko irakasgaiak

Lehen lauhilekoko eskaintza

EGUNA	ORDUTEGIA	
	10,00-11,15	11,45-13,00
ASTEARTEA	Globalización Económica y Desigualdad	Correo Electrónico y Web
	Explorando el cuerpo humano	Cómo son los materiales que nos rodean
	Vida cotidiana en Roma	Cuestiones actuales de protección social
	Unión Europea: política y economía	Derecho e Interculturalidad
	Los otros caminos hacia la historia	Evolución Humana desde la biología
	El siglo XIX: pintura, escultura, música	
ASTEAZKENA	Procesos sociales en un mundo global	Procesos sociales en un mundo global
	Evolución Humana desde la biología	Evolución Humana desde la biología
	El siglo XIX: pintura, escultura, música	El siglo XIX: pintura, escultura, música
	Cambio social y educativo	Cambio social y educativo
OSTIRALA	Globalización Económica y Desigualdad	Correo Electrónico y Web
	Explorando el cuerpo humano	Cómo son los materiales que nos rodean
	Vida cotidiana en Roma	Cuestiones actuales de protección social
	Unión Europea: política y economía	Derecho e Interculturalidad
	Los otros caminos hacia la historia	Cambio social y educativo

Bigarren lauhilekoko eskaintza

EGUNA	ORDUTEGIA	
	10,00-11,15	11,45-13,00
ASTEARTEA	Matemáticas en la vida cotidiana	La Prensa: tecnología y diseño
	Política vasca	Salud On Line
	Informática Práctica: excell y ppt	Desarrollo y Cooperación Internacional
	Lenguas y Escrituras en la antigüedad	El nacionalismo alemán 1920-1933
	Hª Económica de Euskal-Herria	
ASTEAZKENA	El nuevo lenguaje económico	El nuevo lenguaje económico
	Hª de la integración europea	Hª de la integración europea
	Evolución humana desde la biología	Evolución humana desde la biología
	Medicamentos y Sociedad	Medicamentos y Sociedad
OSTIRALA	Matemáticas en la vida cotidiana	La Prensa: tecnología y diseño
	Política vasca	Salud On Line
	Informática Práctica: Excell y PPT	Desarrollo y Cooperación Internacional
	Lenguas y Escrituras en la antigüedad	El nacionalismo alemán 1920-1933
	Hª Económica de Euskal-Herria	

Hautazko irakasgaien eskaintza bi lauhilekotan banatzen da, bakoitza hamabost astekoa.

Hautazko irakasgaiok lauhileko bakarrean egin daitezke, edo bat lauhileko bakoitzean. Nahitaezko irakasgai bakoitzak 4,5 kreditu dauzka, hots, 45 eskola orduren pareko zama.

2.- TRAMITE ADMINISTRATIBOAK

2.1.- LEHEN MAILAN IZENA EMATEKO PROZESUA

Izena emateko prozedura

Lehen mailan izena emateko eskaria Internetez egin behar da, Bizkaiko Esperientzia Gela web orriaren bidez.

Plaza kopurua

Hogeita hamar (30) plaza eskaintzen dira guztira.

Izena emateko baldintzak

- 55 urte beta izatea 2020ko urriaren 1a baino lehen.
- Erretiratua edo antzekoa izatea, edo etxekoandrea edo etxegizona izatea.

Izena emateko epea

Uztailaren 1etik 10era.

Izena emateko prozesuan onartutako eskariak

Izena emateko prozesuan onartutako eta baztertutakoen zerrenda Esperientzia Gelen web orrian argitaratuko da, uztailaren 14tik aurrera.

Behin betiko onarpena

Lehen mailan eskainitako plazak behin betiko banatuko dira izena emateko prozesuan onartutako eskarien artean, uztailaren 20an egingo den zozketaz.

Behin betiko onartutako pertsonen zerrenda eta itxaron zerrenda Bizkaiko Esperientzia Gelen web orrian argitaratuko dira uztailaren 21ean.

2.2.- BIGARREN, HIRUGARREN ETA LAUGARREN MAILETAN IZENA EMATEKO PROZESUA

Izena emateko prozedura

Ikasleek telefonoz deitu beharko dute idatzkaritzara eta hitzordua eskatu matrikula irailean egiteko.

Interesdunek eurek eskatu beharko dute hitzordua. Ez zaio inori hitzordu bat baino gehiago emango, eta ezin izango da eskatu interesduna ez den beste inorentzako hitzordurik.

Telefono honetan baino ez dira emango hitzorduak: 946017864.

Izena emateko egunak eta orduak

2. maila: ekainaren 26a (ostirala, 8:00etatik 13:30era).

3. maila: ekainaren 25a (osteguna, 8:00etatik 13:30era).

4. maila: ekainaren 24a (asteazkena, 8:00etatik 13:30era).

2.3.- MAILA GUZTIERAKO MATRIKULA DATAK ETA EPEAK

4. maila irailaren 2a, 3a, 4a eta 7a

3. maila irailaren 8a, 9a, 10a eta 11

2. maila irailaren 14a, 15a, 16a eta 17a

1. maila irailaren 23a eta 24a

2.4.- 2020/2021 IKASTURTERAKO TASA AKADEMIKOAK

Prezioa

Kreditu bakoitzaren prezioa, edozein mailatakoa dela ere, 13,5 euro da.

Ordaintzeko baldintzak

Matrikula epe bakarrean ordainduko da. (Aukera dago BBKren finantzaketa berezia lortzeko. Galdetu BBKren edozein bulegotan).

Matrikulako prezioaren %50eko murrizpena dago 1. kategoriako familia ugariantzat (familia ugariaren liburu eguneratua aurkeztu behar da). Era berean, %33ko desgaitasuna edo handiagoa duten ikasleak eta terrorismo ekintzen eta genero indarkeriaren biktimak salbuetsita daude matrikula ordaintzetik.

Bekak

Ikasteko laguntzak ere eska daitezke (matrikularen prezioaren %50). Matrikulatzeko garaian, ikasleek informazio zehatzagoa jasoko dute.

2.5.- 2020/2021 IKASTURTERAKO PLAZEN ERRESERBA

Oraingo egoera berezia aintzat hartuta, 2019/2020 ikasturtean Bizkaiko Esperientzia Geletan matrikulatuta egon diren eta 2020/2021 ikasturtean ez matrikulatzea erabakitzen duten guztiek eskubidea izango dute plaza erresebatzeko 2021/2022 ikasturterako, hala eskatzen badute 2020ko uztailaren 1etik 10era bitartean, telefono hauetara deituta: 946017850 / 946017864..

Plaza erresebatzeak berekin dakar 2020/2021 ikasturteko matrikulari uko egitea.

2.6.- ESKOLA EGUTEGIA

Lehenengo lauhilekoa	2020ko urriaren 5etik 2021eko urtarrilaren 29ra.
Bigarren lauhilekoa	2021eko otsailaren 1etik 2021eko maiatzaren 28ra.
Neguko oporrak	2020ko abenduaren 21etik 2021eko urtarrilaren 7ra.
Udaberriko oporrak	2020ko martxoaren 29tik 2021eko apirilaren 11ra.

Ez dira eskola egunak izango Eusko Jaurlaritzak finkatutako udalerriko eta autonomia erkidegoko jaiegunak, eta UPV/EHUko lan egutegian onartutakoak.

PRESTAKUNTZA EGUNERATZEKO IKASTARO OSAGARRIAK I ETA II 2020/2021 IKASTURTEA

2020/2021 ikasturtean ez dira emango Prestakuntza Eguneratzeko Ikastaro Osagarriak I eta II.